

PROYECTOS ARTÍSTICOS – PROIEKTU ARTISTIKOAK, 2015

“Contraposición de lo sensible a lo racional. Lo banal frente a lo útil.” “Sentiberatasuna eta arrazoizkotasuna kontrajarriak. Hutsala eta erabilgarria aurrez aurre”. Natalia Albéniz

Montehermoso kulturuneak Natalia Albenizen **“Sentiberatasuna eta arrazoizkotasuna kontrajarriak. Hutsala eta erabilgarria aurrez aurre”** proiektua aurkezten du, aurtengo deialdian hautatutako zazpi lanetarik hirugarrena, hain zuzen ere.

Natalia Albeniz gasteiztarra Arte Ederretan lizentziaduna da, pintura espezialitatean. Euskal Herriko Unibertsitatean sorkuntza eta ikerketa masterra egin zuen, eta horren baitan honako proiektu teorikoa aurkeztu zuen joan den maiatzean: **“La distancia que separa al arte del público. Dificultades para la comprensión y aceptación del arte contemporáneo en la sociedad occidental actual.”**

Bere lanak, oro har, bi dimentsiotakoak izaten dira: pintura, argazkia eta ilustrazioa. Gutxiago badira ere, hiru dimentsiotako lanak ere egin ditu, eta eskultura eta pinturaren arteko lanak dira. Proiektuetan honako gaiak lantzen ditu: egunerokotasuna, eta ohiko esperientziak sentiberatasunezko esperientzia gisa.

Formatu txikiko 36 argazkik osatzen dute Montehermoson aurkezten duen lana, erabili eta botatzekoak diren argazki-kamerez eginak, eta bere eguneroko inguruak islatzen dituzte.

Proiektu artistikoak, 2015

Proiektu artistikoak diruz laguntzeko hirugarren deialdia da, eta proiektuen produkzioa eta garapena bultzatuz hiriko artisten lana ezagutarazteko xedea du.

Aurtengo deialdiak 22 eskabide jaso zituen, eta zazpi proiektu hautatu ziren; horien artean banatu dira aurtengo edizioari esleitutako 12.000 euroak, lortutako puntuazioaren arabera.

Proiektua garatzeko eta gastu orokorreari aurre egiteko zenbateko horrez gain, Montehermoso kulturuneak lanak jendaurrean erakusteko espazioak eta baliabide teknikoak eskaintzen ditu.

Proiektu hautatuak Montehermoso kulturunean erakutsiko dira, urteko laugarren lauhilabeteko programazioaren baitan.

Hurrengo proiektuak:

- **NURIA PÉREZ-CÁRCAMO. Naturalmente residuos (hondakinak sortzeari buruzko hausnarketa: birziklatutako elementuekin egindako bi dimentsiotako eta hiru dimentsiotako piezak)**
2015eko urriaren 16tik azaroaren 15era. Jovellanos aretoa
- **IRANTZU LEKUE. Indiasensations (Indiarako bidaia batean sortutako sentsazio eta sentimenduak oinarri dituen instalazioa)**
2015eko urriaren 16tik azaroaren 15era. Lehen solairua
- **MIGUEL A. HERNÁNDEZ (Zirika). Hitz baten olerkiak (naturari buruzko poesia esperimentaleko proiektua, argazkiak eta instalazio bat baliatuta)**
2015eko urriaren 16tik azaroaren 15era Lehen solairua
- **SARA BERASALUCE. Forget-Forgot-Forgotten (MichelAngelo Antonioniren BLOW UP filmean oinarritutako argazkigintza proiektua)**
2015eko abenduaren 10etik 2016ko urtarrilaren 17ra. Klaustroa, bigarren solairua

PROYECTOS ARTÍSTICOS – PROIEKTU ARTISTIKOAK, 2015

“Contraposición de lo sensible a lo racional. Lo banal frente a lo útil.” “Sentiberatasuna eta arrazoizkotasuna kontrajarriak. Hutsala eta erabilgarria aurrez aurre”. Natalia Albéniz

Montehermoso presenta el proyecto **“Contraposición de lo sensible a lo racional. Lo banal frente a lo útil”** de Natalia Albéniz, el tercero de los siete trabajos seleccionados en la convocatoria de este año.

Natalia Albéniz, nacida en Vitoria-Gasteiz, es licenciada en BBAA, en la especialidad de pintura. Ha cursado el máster en Creación e Investigación en la UPV/EHU dentro del cual presentó el pasado mes de mayo el proyecto teórico: **“La distancia que separa al arte del público. Dificultades para la comprensión y aceptación del arte contemporáneo en la sociedad occidental actual.”**

Sus trabajos son, en su mayoría, de tipo bidimensional: pintura, fotografía e ilustración. En menor medida, ha realizado trabajos en tres dimensiones que se encuentran entre la escultura y la pintura. En sus proyectos suele abordar temas referidos a la cotidianidad, a la experiencia ordinaria como experiencia sensible.

El proyecto que presenta en Montehermoso se compone de 36 fotografías de pequeño formato sacadas con cámaras de usar y tirar en las cuales refleja entornos de su día a día.

Proyectos Artísticos 2015

Esta es la tercera edición de la convocatoria de Proyectos Artísticos, cuyo objetivo es hacer visible el trabajo de las y los artistas locales mediante el apoyo en la producción y difusión de sus proyectos.

La convocatoria de este año recibió 22 solicitudes, siendo seleccionados siete proyectos, entre los cuales se ha distribuido, en función de la puntuación alcanzada, los 12.000 euros asignados a esta edición.

Además de esta cuantía económica para la producción y gastos generales del proyecto, el Centro Cultural Montehermoso aporta los espacios y recursos técnicos necesarios para su presentación pública

Los proyectos seleccionados se presentan en el Centro Cultural Montehermoso, formando parte de la programación del centro, en el último cuatrimestre del año.

Próximos proyectos:

- **NURIA PÉREZ-CÁRCAMO. Naturalmente residuos (reflexión sobre la generación de residuos: piezas bidimensionales y tridimensionales a partir de elementos de reciclaje)**
Del 16 de octubre al 15 de noviembre de 2015. Sala Jovellanos
- **IRANTZU LEKUE. Indiasensations (instalación que parte de las sensaciones y sentimientos creados en un viaje a la India)**
Del 16 de octubre al 15 de noviembre de 2015. Planta primera
- **MIGUEL A. HERNÁNDEZ (Zirika). Hitz baten olerkiak (proyecto de poesía experimental sobre la naturaleza a través de fotografía e instalación)**
Del 16 de octubre al 15 de noviembre de 2015. Planta primera
- **SARA BERASALUCE. Forget-Forgot-Forgotten (proyecto fotográfico basado en la película BLOW UP de MichelAngelo Antonioni)**
Del 10 de diciembre de 2015 al 17 de enero de 2016. Claustro planta 2